

AIA • GETARIA • ORIO • ZARAUTZ • ZUMAIA ■ KIROL ALDIZKARIA

sasoiian

2011ko martxoa

23. zenbakia

ORIOKO I. MENDI LASTERKETA
18 kilometro gora eta behera • 10

MAHAI-TENISERAKO GRINA
Maria eta Joseko ikasleen kirola • 12

EUSKAL HERRIKO TONTORRAK
Getariako mendizaleen erronka • 16

**Karmele Makazaga
eta Maialen Mujika**

**“Kilti-Kolo gabiltza, baina urtero
bezala mailari eutsiko diogu” • 4**

«Emaizta ona bada, sagardotegira gonbidatzen dut entrenatzailea»

Erredaktorea

Aritz Mutiozabal

Harremanetarako: 607 615 239

e-posta: sasoian@sasoian.info

Argazkiak

AZALA: Urola Kostako Hitza.

Sasoian 2.0: Urola Kostako Hitza.

Beroketa ariketak: Urola Kostako Hitza.

Berriketa: Urola Kostako Hitza,

Maialen Mujika eta Karmele

Makazaga.

Kronika: Orioko Herri Ikastola eta

Bittor Mutiozabal.

Kirolari gazte: Maria eta Jose

Ikastetxea eta Zarautz Kirol Elkarteak.

Hariari tiraka: Urola Kostako Hitza,

Bittor Mutiozabal eta Juan Luis

Romatet.

Diseinua

Roberto Gutierrez

Maketazioa

Ane Azkue

Edukien garapena

Urola Kostako Hedabideak EM

Inprimategia

Orvy EM

Argitaratzailea

SASOIAN aldizkaria **Urola Kostako**

Udal Elkarteak argitaratzen du.

Aldizkari honek Aia, Getaria, Orio,

Zarauz eta Zumaia kirol albisteak

jasotzen ditu.

www.sasoian.info



Urola Kostako Udal Elkarteak

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta

Zumaia kirol albisteak, agenda

nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.

UROLA KOSTAKO



UDAL ELKARTEA

ZOZKETA



LAGUN ARO SASKIBALOI
TALDEAREN ESKUTIK **BALOIA**
ETA BUFANDA

Irabazlea:
MALEN
RODRIGUEZ
(Zumaia)



Hasi besterik ez du egin denboraldia Aritz Aranburu surfari zarautzarrak, baina WCT mailara igotzea duela helburu aitortu die irakurleei, *Sasoian.info*-ren elkarrietzeta digitalean.

Gainditu al duzu lesioa? zer moduz joan da errekupeperazioa? Alex

Lesioa %90ean gainditu dudala uste dut. Orkatilean eramaten dudana protesia kendu eta surfa egiten hasten naizenean, orduan esango dut guztiz osatuta nagoela.

Goi mailan zabiltzanez, zure entrenamenduak gogorak izango dira, bartzuk uretan eta besteak lehorrean. Lehorrekoak, fisikoari dagokionez, nolakoak dira? Zer lantzen duzu gehiago, aerobikoa edo anaerobikoa? Nerea

Lehorrean oso garrantzitsua da aerobikoa eta anaerobikoa lantzea. Olatu bat surfeatzeko garaian taupadak neurtuko bagenitu, emaitza oso altuak jasoko genituzke. Ondorioz, entrenamenduak hori lantzerantz bideratu behar izaten ditugu. Bestalde, arraunean pasatzen dugun denbora oso luzea da. Erresistentzia lantzea ere oso garrantzitsua da. Igeriketa, txirindularitza, sokasalto, yoga eta fitball-a sartzen ditut nire eguneroko lanetan.

Munduan zeharreko txapelketetan zure entrenatzailea alboan ez izateak,

zer gauza on eta zer gauza txar ditu?

Ahal izanez gero gehiagotan eramango nuke Aitor Frantzesena nire alboan. Hala ere, bidaiak bakoitza helburu batean bihurtzen dugu eta, etxera itzultzean, emaitzak onak izan badira, behartuta nago entrenatzailea sagardotegi batera gonbidatzera. Aitor beharrezkoa izan da nire ibilbide osoan.

Axi Muniain edo Ibon Amatriain bezala, olatu handietan sartzeko gogorik ez al zaizu pizten? Animo!!! Igone

Bidaiatzen dudanean olatu handiak hartzeko aukera izaten dut. Asko gustatzen zaizkit sentsazio horiek. Txapelketak alde batera uzten ditudan egunean, ni ere olatu handien atzetik ibiliko naiz. Baina, oraingoz, gustura nabil biak tartekatzen.

Astin surf kantxa egingo dutela entzun dut. Zer iruditzen zaizu halako azpiegitura izatea herrian? Mikel

Profesional batentzat edo beste edozeinentzat entrenatzeko edo ondo pasatzeko toki ireki bat edukitzea oso ondo iruditzen zait. Munduan dagoen surf kantxa artifizialik onena eta errealtatetik gertuen dagoena izango da. Gainera, ohore handia izango litzateke Zarautzek honelako instalazio bat edukitzea. Itsasoan ditugun olatuei horrelako kantxa bat gehitu bagenie, emaitza ezin hobea izango litzateke kirol honetaz eta itsasoko beste kirol guztiez gozatzeko.

Entrenamenduak gomak erabiliz

INDARRA lantzeko tresna erabilerrak bezain eraginkorrak dira goma edo zinta elastikoak. Hainbat kiroletan, gainera, prestaketa fisikoaren atal garrantzitsu bihurtu dituzte. Hainbat ariketa eta mugimenduren bitartez, gomak luzatuz egiten da entrenamendu mota hau. Helburua gorputzeko gihar taldeak lantzea da, gometatik tiratzerakoan sortzen den erresistentzia aprobeztatzuz. Azken finean, pisuak erabilia egiten den lanaren baliokidea litzateke, nahiz eta ez izan berdina. Izan ere, goma elastikoek garapen mugatua dute, kargari eta



PILATES METODOAREKIN
gorputza eta adimena
lantzen dira.

NOLA ERABILI

- Norbere gorputza (hankak eta bizkarra, batez ere) edo horma-barra euskarri bihurtuta, gihar bakoitza lantzeko hainbat ariketa egin daiteke, goma eslastikoetatik behin eta berriz tira eginez.
- Ariketa-zirkuitu bat egitea komeni da, goikaldeko zein behekaldeko gihar garrantzitsuenak landuz.
- Ariketa bakoitzean behin eta berriz tiratzea komeni da, eraginkorra izan dadin; errepikapen gutxi eginez hasi (8-10 tiraldi inguru) eta asteak pasa ahala, progresiboki gehitzen joan (25-30 tiraldira iritsi arte). Baina, errepikapenak pixkanaka gehitzen diren bezala, ariketa-zirkuitua ere errepikatu daiteke aurrera begira.
- Zirkuitua egin ostean, laupabost korrika saio bizi egin behar dira, 50-100 metrokoak, oinkada luzeak emanez, giharrak askatzeko.
- Gomak entrenamendu saio bezala erabili daitezke, baina baita beroketak egiteko edo saio baten bukaeran giharrak tonifikatzeko ere.

MATERIALA

- Edozein kirol edo fitness dendatan eros daitezke goma edo zinta elastikoak, baita ortopedia dendetan ere. Ez dira garestiak: euro gutxi batzuen truke eskura daitezke, eta gutxienez 5 urte irauten dute.
- Latexarekin egindakoak izan behar dute eta 3-5 metro arteko luzeradunak. Zapalak izan daitezke, edo 1,5 zentimetro diametroko lodierakoak.
- Gomen ertz bakoitzean korapilo bat egitea komeni da (zortzi formakoa, ahal bada), helduleku gisa erabiltzeko.
- Erraz eraman daitezke batetik bestera, eta oso praktikokoak dira edozein tokitan nahiz momentutan erabiltzeko.
- Erabili ondoren, lehortu eta, noizbehinka, xaboiak garbitu, pilatzen joango den izerdia ezabatuz.

erresistentziari dagokionez, eta muga hori gainditzen denean ezin zaio karga nahiz erresistentzia gehiago gehitu. Pisuekin entrenatzerakoan, aitzitik, ez da halakorik gertatzen: beti gehitu daitezke kiloak. Edonola ere, gomek ez dute zertan pisuen ordezko izan behar, elkarren osagarri izan baitaitezke. Azken finean, entrenamendu mota ezberdinak dira. Hala eta guztiz ere, gomak ez dira pisuak bezain oldarkorrak eta, ondorioz, lesionatzeko arrisku gutxiago dute. Hasiera batean, giharrak modu leun eta kontrolatu batean tonifikatzeko erabiltzen zituzten gomak, lesio batetik osatzeko. Ondoren, fitness munduan eta mantenuko gimnasia egin zen ezaguna, ariketa fisikoa egiteko oso erabilerraza zelako. Azken hamarkadan, kirol kolektiboetako nahiz indibidualetako prestaketa fisikoaren parte bihurtu dira. Oro har, indarra, abiadura, erresistentzia eta malgutasuna hobetzen laguntzen du, eta hori edozein kirolarientzat da mesedegarri. Giharretako zuntzak indartzen ditu pixkanaka-pixkanaka, eta enborreko nahiz gerriko gihar egonkortzaileen mugimendua hobetzeko balio du. Horretaz gain, artikulazioen ibilbidea zabaltzen laguntzen dute. Korrika egiterakoan, esaterako, artikulazioen anplitudea keinu jakin batera mugatzen da eta, besteak beste, goma bidezko ariketak egiten ez badira, laburtu egin daiteke.

Maialen Mujika eta Karmele Makazaga

Eskubaloi jokalaria eta jokalaria ohia

«Etxeko lanarekin emaitzak lortzea da gure filosofia; harrobi lanarekin, alegia»

Izan zena eta izango dena. Halaxe dira Makazaga eta Mujika; lehenak ibilbide oparoa egin zuen eskubaloian eta bigarrenak haren urratsei jarraitu nahi die.



Belaunaldi ezberdinek bat egiten dutenean, garai batean izan zena gaur egun denarekin konparatzea ohiko jolasa bihurtzen da. Eskubaloiak, ordea, eskubaloia izaten jarraitzen du Zarautzen: pasio handiko kirola, lagunartekoa eta etxekoa. Familia handi bat osatzen dute, hain zuzen ere. Eta familia guztietan bezalaxe, honetan ere nabarmentzen diren hainbat kide daude. Karmele Makazaga (Zarautz, 1964), esaterako, Euskal Herriak inoiz eman duen eskubaloi jokalaria onenetakoa da. Ikur eta erreferente nagusia, zalan-zarik gabe. Maialen Mujika (Zarautz, 1991), berriz, etorkizuneko itxaropen berria. Zarautzko Kirol

Patronatuak 2010eko herriko kirolari onenaren saria eman zion Mujikari eta, bide batez, Makazaga omendu zuen, bere kirol ibilbide oparoa goratuz. Belaunaldiz belaunaldi gauzak aldatzen eta berritzen joaten badira ere, begi bistakoa da Zarautzko emakumezkoen eskubaloiak harrobi paregabea izaten jarraitzen duela.

Urte honen hasieran Zarautzko Kirol Patronatuak omenaldi xumea egin zizueten Kirolaren Galan, beste kirolari batzuekin batera. Nola jaso zenuten saria?

Maialen Mujika: Ilusio handiarekin jaso nuen saria. Sekulako ezustea izan zen! Iaz lorpen per-

tsionalak izan nituen, eta egindako lana errekonozitzea polita da. Izan ere, joan den uztailan junior mailako Munduko Txapelketa jokatu nuen Hego Korean; aurretik, maiatzean, Mundialaren aurrekoa jokatu genuen Valentzian eta, ondoren, prestaketa gisa, Norvegiar txapelketa ireki batean hartu genuen parte. Espainiako selekzioarekin jokatzeko hainbat urte daramat, baina azken urtea izan da niretzat garrantzitsuenak, nahiz eta Munduko Txapelketan ez ginen horren fin aritu eta hamargarren bukatu genuen.

Karmele Makazaga: Nik harri-duraz jaso nuen omenaldia, egia esan! Hemezortzi urte badira esku-

«Elkarterik izango ez balitz, Maialen eta biok ez genuen izan dugun ibilbiderik izango»

baloia utzi nuela, eta pixka bat ahaztuta neukan. Baina norbait nitaz gogoratu da edo kexatu egin da... Jakin badakit jende asko zegoela halako sari bat merezi nuela esanez. Azken finean, Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen lehen zarauztarra izan nintzen eta, gainerako olinpikoak omenduta, ni falta nintzen. Berandu bada ere, ongietorria izan da! Aurretik Zarautz Kirol Elkartearen 75. urteurrenean elkarreak berak insignia eman zidan, baina orain arte Udalak ez zidan omenaldirik egin.

Jasotako saria indibiduala bada ere, Zarauzko emakumezkoen eskubaloian ibilbideari eginiko errekonozimendua ere badela uste al duzue?

K.M.: Noski baietz! Azken finean, Zarauzko eskubaloian egiten dugu lan, eta elkarterik izan ez balitz, Maialen eta biok ez ginen hemendik aterako eta ez genuen izan dugun ibilbiderik izango.

M.M.: Erabat ados nago Karmelekin! Inguruko guztia izango ez bagenu, ez ginen inora iritsiko.

Karmele, emakumeok eskubaloian hasi zinetenetik hona, hasitapen haietatik hona, sekulako aldaketa antzemango zenuen, ezta?

K.M.: Gauzak asko aldatu dira gu hasi ginetetik. Zorionez, jarraipena eta garapena izan du, eta horrenbeste urtean lan egin ondoren, benetako emaitzak orain datozela uste dut. Azken hamar urtetik hona, alegia.

KARMELE MAKAZAGA
ZARAUTZ, 1964

MAIALEN MUJICA
ZARAUTZ, 1991



« Hemengo talde onena Bera Bera da, eta haiek eramaten dituzte inguruko jokalaririk onenak »»

Eta egun zein da eskubaloiren egoera?

M.M.: Hemen beti bezala jarraitzen dugun arren, kanpoan ikusten da krisiaren eragina. Azken urteetan ez daude horren ongi taldeak. Gurean, beharbada, zuzendaritza taldeak lan gehixeago egin behar duela ikusten da.

K.M.: Emakumezkoen lehen taldea kili-kolo dabil, baina urtero bezala mailari eutsiko dio, Ohorezko Zilar Mailari alegia. Zaila da, harrobiko jokalariz osatuta baitago taldea. Hauen kategorian, gainerako taldeetan jokalariek kobratu egiten dute, edota jokalaririk atzerritarrek ekartzen dituzte. Eta horrelako taldeen aurka jokatzeko ez da erraza. Bestalde, zonaldeko talde onena Donostiako Bera Bera da, eta inguruko jokalaririk onenak haiek eramaten dituzte. Gainerako mailetan,

jubeniletan eta kadeteetan, oso maila ona ematen ari gara Zarautzen.

Denboraldiari ez diozue hasiera txukuna eman, azken postuetan baitzaudete. Zeintzuk dira denboraldiko helburu nagusiak?

M.M.: Saillapenean pare bat koska gorago kokatzea da; hau da, azken hiru postuetatik aldentu eta mailari eustea. Horretarako gogor ariko gara lanean eta, nola ez, zorte pixka bat ere beharko dugu. Iaz azkeneko jardunaldian lortu genuen mailari eustea, eta duela bi denboraldi ere azken txanpan lortu genuen helburua.

Gero eta profesionalago al da lehiatzen zaitzen kategoria?

M.M.: Aurten gutxiago dela esaten dute, baina berdin-berdin ikusten ditugu jokalaririk atzerritarrek gainerako taldeetan. Gurekin konparatuta, behintzat, badago aldea. Guk etxeko jendearekin eta, gehienez, inguruko jokalariekin osatzen dugu taldea.

Eta horri aurre egiteko babesle ekonomiko garrantzitsuagoak behar al dira?

K.M.: Ez, gure filosofia ez da kanpoko jendea taldera ekartzea. Gure babesleak mailari eusten laguntzen digu, bidaietako eta halakoetako gas-

BI BELAUNDI parez-pare; Maialen Mujika ezkerrean eta Karmele Makazaga, eskuinean.

tuak ordaintzeko ahalegin ekonomikoa eginez. Hala eta guztiz ere, gure filosofia etxeko lanarekin emaitzak lortzea da; harrobi lanarekin, alegia.

Garai batean bezala, Ohorezko Mailara igo eta Akaba Bera Bera edota Itxako taldeen pare lehiatzea hitz potoloegiak al dira gaur egun?

K.M.: Hitz potoloak dira horiek, bai. Zarauzko emakumezkoen taldeak 80ko hamarkadan Ohorezko Mailara igotzea lortu zuenean, ez zegoen Akaba Bera Berarik. Duela 25 urte pasatxoko kontuak ezin dira gaur egungoekin konparatu, ezinezkoa da. Gauzak ikaragarri aldatu dira eta, egun, Bera Berak Gipuzkoako eskusibotasuna hartu du, bertako jokalaririk onenak bereganatuz. Horretaz gain, atzerriko jokalaririk ere ekartzen ditu. Guk ez dugu haiek duten aurrekonturik, eta ez dugu sekula edukiko.

Erokeria al da noizbait hori lortuko dela amestea?

M.M.: Gauzak asko aldatu beharko lukete horretarako...

K.M.: Gerta daitekeena zera da: beraiek maila galtzea dirurik ez dutelako eta guk gaur egungo mailari eustea, gure lanari esker.

Belaunaldi ezberdinetako bi eskubaloitako jokalariek zarete. Alde bategatik, Euskal Herriak inoiz izan duen jokalaririk onenetakoa eta bes-tetik, etorkizunekoak. Modu horretan ikusten al duzue elkar?

M.M.: Niretzat Karmelek egindako eta lortutako guztia izugarria da. Egia esan, asko gustatuko litzaidake bere bidea jarraitzea. Zalantzarik gabe, erreferente nagusia da Zarautzen. Talde barruan Olinpiar Jokoen parte hartzerara iritsi zen jokalaria da, listoia oso goian utzi zuen jokalaria.

K.M.: Eta pentsa, hauen erdiak ere ez naute jokatzeko ikusi! Nire alabak izan daitezke! Hauek jaiotzerako nik ia egin beharreko guztiak eginak nituen. Maialen dagokionez, bere ibilbidea oso ona da eta bide onetik doa. Lortuko duela uste dut.

Azpiko mailetatik Espainiako selekzioarekin jokatzeko hasitakoak zarete biok. Maialenek junior mailako Munduko Txapelketa jokatzen duen udan Seulen; Karmelek, berriz, duela 25 urte inguru. Nolako esperientziak izan ziren?

M.M.: Ez nekien datu hori!

K.M.: Juniorretan izan zen, bai.

M.M.: Gure kasuan, behintzat, eskubaloia izan zen. Hemen ez da horrelakorik ikusten; ikuskizunari dagokionez, batez ere. Karmeleren garaian ere handia izango zen, baina guk, behintzat, teknologia berriak eta gauza arrarogari ikusi genuen.

K.M.: Guretzat esperientzia itzela izan zen, hasiberri batzuk baikin. Gaur egun gazteek askoz ere gehiago bidaiatzeko dute, baina gure garaian etxetik ateratzen ginen ia lehen aldian zen eta hura ikaragarria izan zen. Harrezkero, eskubaloia asko aldatu da.

Selekzioarekin aritzeak eta, era berean, nazioarteko partidak jokatzeak jokalaririk bezala hezitzen laguntzen al du?

M.M.: Esperientzia berriak bizitzeko balio du, baina ez dakit jokalaririk bezala garatzen laguntzen duen. Egia da selekzioan jokalaririk onenak elkarrekin gaitzen eta maila handia dagoela, baina azkenean hilabete bateko egonaldi batean ezin duzu horrenbeste



Karmele Makazaga

ATZOKOA GAUR

«Kirol guztiak praktikatzen nituen eskola garaian. Batez ere, krosa egiten nuen eta

nahikoa ongi moldatzen nintzen. Baina, 16 urte-

rekin ezin nituen bi kirolak egin, eta eskubaloia aukeratu nuen, talde polita geneukalako eta askoz ere hobeto pasatzen nuelako, nire aitaren desgusturako. Eskua txikia nuela eta ez nuela baloia ongi harrapatzen esaten zidan. Zarauzko mutilen taldeko kideak boluntario hasi ziren nesko eskubaloian irakasten, modalitatea sustatzen, taldea sortzeko helburuarekin. Eskolan hasi ginen, zortzigarren mailan, eta gero elkarte barruan taldea sortu genuen eta beste herrietara joaten hasi ginen partidak jokatzen. Kaleran jokatzeko, euritan; Zarauzko Munoa plazan. Baloia itsasora erortzen zitzaigun eta *kixkilleroarekin* jasotzen genuen! Orduan, zure burua lurrera botatzea ez zen broma...sekulako arrastak egiten genituen, harri koxkor guztiak itsatsita geratzen zitzaizkigun zangoetan eta besoetan. Egungo jokalariek kiroldegiko kantxa ezagutu dute betidanik, baina hau guk inauguratu genuen».

«Zarauzko emakumezkoen taldeak behin baino ez du jokatu Ohorezko Mailan. Partida bakarra berdindu genuen denboraldi osoan. Bat-batean igo zen mailaz eta kategoria handiegira geratu zitzaigun. Orduan ere herriko jokalariek eta Zumaiako beste taldeak osatzen genuen taldea. Duela hiru urte igoeraren 25. urteurrena ospatu zuten, baina talde hartan ez nengoen ni, Donostiako Unibertsitariosen jokatzeko bainuen».

«Zarauzko taldearekin goiko mailan jokatzeko ohore bat izan zen eta bolada hartako oroitzapen oso gozoak ditut, nahiz eta irabazteko gai ez izan. Alde horretatik, pixka bat nekagarria bazen ere, nire betiko lagunekin jokatu ahal izateak merezi izan zuen. Gainera, oso lagun onak ditut».

Maialen Mujika

GAURKOA BIHAR



«Ikastolan hasi nintzen eskubaloian, saskibaloian eta futbolekin jokatzeko. Gero, infantiletan kirol bat aukeratu behar genuela eta, eskubaloian murgildu nintzen. Gurasoak eskubaloiarik lotuak egon dira eta horrek eragina izan zuen, baita kiroldegian pasatuko asteburuko arratsalde guztiak ere. Auskalo eskubaloiko zenbat partida ikusten genuen txikitan!»

«Ezker hegalean jokatzeko dute, eta aurtengoa hirugarren urtea dute Zarauzko emakumezkoen goiko taldearekin. Duela hiru urte jokatu nuen nire lehen Munduko Txapelketa, eta ia beste horrenbeste egin nuen junior mailan. Aurten, ordea, jada ez naiz juniorra. Ondorioz, jokatzeko selekzio absolutuarekin izan beharko luke, eta hori ezinezkotzat jotzen dut. Horretarako Ohorezko Mailan jokatzeko duen talde batekin aritu beharko luke, eta askoz lan gehiago egin».

egin. Jakina, lagungarria da eta asko ikasten duzu, baina zure taldean eginko eguneroko lanak gehiago balio du.

K.M.: Gure garaian, aldiz, bestelakoa zen. Gehiago ikasten genuen selekzioarekin etxean baino. Aitzitik, hauek orain etxean egiten duten lana askoz ere handiagoa da; ondoren, lan horri jarraipena ematen diote selekzioan. Egungo jokalariek duten maila eta entrentzeko modua hobea da. Orain gehiago dakigu eta hobeto irakasten diegu!

Karme, guztira 131 aldiz arituz zinen selekzioarekin, bertako kapitaina zinen, eta Bartzelonako Olinpiar Jokoetan ere hartu zenuen parte. Ibilbide oparoa, zalantzarik gabe!

K.M.: Ez dago gehiago eskatzerik. Egia esan, eskubaloian ahal nuen guztia egin nuen eta finkatutako helburu guztiak lortu nituen. Ni horrekin geratzen naiz!

Arantzarik geratu al zaizu? Lortzea gustatuko litzazukeen garaipen bat?

K.M.: Nire frustrazio bakarra euskal selekzioarekin jokatu ez izana da. Gure garaian ez zegoen. Gaur egun, aukera egin beharko banu, ez nuke zalantzarik izango non jokatu. Alde horretatik, egungo jokalariek sekulako inbidia ematen didate.

M.M.: Euskal selekzioarekin izandako bizipenak oso politak izaten dira. Urtero elkartzeko gara lagunartean, eta giro ederra izaten dugu. Espainiako selekzioaren aldean ezberdina da. Bertako selekzioa etxekoa da, bere xarma du, eta irabaztean saria txikiagoa bada ere, asko betetzen zaitu.

Eta datorren urtean Londresen izango diren Olinpiar Jokoetan ikusiko al zaitugu, Maialen?

M.M.: Horretarako gauzak asko aldatu beharko dute. Gure mailan jokatu, ez dut uste selekzio absoluturara iritsi gaitzekunik.

K.M.: Lehengo aldean, orain zailagoa da maila absolutura heltzea. Lehiakortasun eta profesionaltasun gehiago dago. Kasu horretan, Maialenek

«**Nire frustrazio bakarra euskal selekzioarekin jokatu ez izana da, gure garaian ez baitzegoen**»

Karmele Makazaga

erabaki handia hartu beharko luke; hau da, ikasketak utzi edo beste modu batera hartu eta kirol ibilbideari seriotasun gehiago eman. Nik, esaterako, ez nuen halakorik egin. Lana eta entrenamenduak uztartzeko aukera izan nuen; izan ere, ez nuen egunero entrenatzen. Orain, Ohorezko Mailan astea entrenamenduz josita dute, bazuetan goiz eta arrasaldez ere bai.

Zarautzek harrobi inportantea du emakumezkoen eskubaloian: Libe Altuna, Alba Menendez, Maialen Mujika... Beheko mailetatik lana ongi egiten ari zareten seinale?

K.M.: Bai, emaitzak hor daude. Beheko mailetatik hasten gara lanean, eta euskal selekzioarako ere herriko jokalarik asko hautatzen dizkigute, bai kadetetan, bai jubeniletan.

M.M.: Zenbaitzuk zortea izan dugu eta hori guztia bizitzeko aukera izan dugu. Eta hori ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatu gara.

Zer-nolako etorkizuna ikusten duzue etxeko jokalarien artean? Maila handiko jokalarik gehiago aterako al dira epe laburrera?

K.M.: Espero dugu baietz, baina hori denborak esango du. Jendea badator atzetik ere, eta hauek gero eta gorpuzkera handiagoa dute. Izan ere, egun alderdi fisikoa gehiago lantzen da. Gure garaian, atzerrira joaten ginen, izugarriko neska pusken aurka lehiatzen ginen. Egun ere diferentzia dago hemengoan eta hangoen artean, baina jada ez da horrenbestekoa. Hala eta guztiz ere, nik jokatzen nuen garaian selekzio handienetakoa nintzen... Beraz, atera kontuak!

Nabarmetzen diren jokalariek, ordea, talde handiago batera egiten dute jauzi. Hori ezinbestean eman beharreko pausoa al da?

M.M.: Zerbait lortzea goian egotea, internazionalagoa izateari edota kanpoan jokatzeari deitzen baldin badiogu, bada, orduan bai. Zarautzen



astean hirutan entrenatuta ezin da maila horretara iritsi. Bera Bera eta halako talde handiek egunero entrenatzen dute, eta partidak ere biziagoak eta gogorragoak dira.

Eta, burutik ez al zaizu pasa profesionaletara jauzi egiteko ideia?

M.M.: Horretarako gauza asko hartu behar da kontuan: herriko taldea uztea, ikasketak, talde berrira egokitzeta... Dena bat etortzen den egunean posible izango da. Nitaz galdezka etorri al diren? Bera Berak eskaintza moduko bat egin zidan.

K.M.: Orain ez da memento ona, krisian murgilduta baikaude, eta hori toki guztietan igartzen da.

Zuk kanpoan egin behar izan zenuen ia ibilbide osoa, Karmele.

«**Denak ondo koadratzen duen egunean izango da posible profesionaletarako jauzia**»

Maialen Mujika

K.M.: Jubenil mailara arte Zarautzen jokatu nuen, eta gero Donostia-ko Unibertsitarios taldearekin jokatzen hasi nintzen, Ohorezko Mailan. Kategoria horretan jokatu beharra neukan, Espainiako selekzioarekin jokatu nahi banuen. Urtebete geroago, Zarauzko emakumezkoen taldea Ohorezko Mailara igo zen eta etxera bueltatu nintzen laguntzera. Maila eman ez genuenez, denboraldi bakarra iraun genuen hor goian. Ondoren, Hernani taldearekin aritu nintzen jokatzen hurrengo zortzi urteak. Izan nuen Madrilera joateko eskaintzarik, baina hemen geratzea erabaki nuen. Erretiroa hartu aurretik, beste bi urte egin nituen Bidebietan. Edonola ere, nik ez nuen jokalaria profesional izateko aukerarik izan. Profesionala izan nintzen, baina beste modu batera, eta lan eginez. Azken finean, nire maila pertsonala lortzeko eta selekzioarekin jarduteko entrenatzen nuen.

Eta, ondoren, entrenatzaile lanetan hasi zinen.

Hala da, bai. Eskubaloia utzi ondoren, entrenatzaile lanetan hasi nintzen Zarautzen. Hain justu ere, urte horretan emakumezkoen taldea lehen mailara (Ohorezko Zilar Mailara) igo zen, egun dauden kategoriara. Denboraldi batez entrenatzen jarraitu nuen arren, nire bizitza familiarak ez zidan denborarik uzten eta utzi egin nuen. Harrezkero, beste entrenatzaile batzuk pasatu dira taldetik. Era batera zein bestera, Zarauzko emakumezkoen lehen taldeak hamalau urte daramatza gaur egungo kategoriari eusten.

Karmele eredu bat izango da zuontzat. Berak lortu duena berdintzea ametsa al litzateke?

M.M.: Jakina, nahiko nuke horren urrutira iritsi!

Zer gomendio emango zenioke horretarako, Karmele?

K.M.: Asko entrenatu dezala, lanik gabe emaitzarik ez baita lortzen. Horretaz aparte, zorterik onena opa diot, batez ere lesioekin. Arazo fisikoek asko baldintzaten dute jokalaria baten ibilbidea.



Kukuarriren altzoan sasoi betean

Orioko I. Mendi Lasterketa antolatu du Orioko Herri Ikastolak, apirilaren 10erako; 18 kilometroko ibilbidea izango du, 1.000 metroko gorabehera metatuarekin, Mendian lasterka «hasteko» aproposa da.

**MENDIA
ETA ITSASOA
uztartzan ditu
Orioko
lasterketako
ibilbideak.**

ORIOKO HERRI IKASTOLAK hainbat kultur eta kirol jarduera antolatzen du urtean zehar herrira begira: ikastaroak, saskibaloitxapelketak, triatloia... Oraingo honetan, ordea, pauso bat haratago eman eta Orioko I. Mendi Lasterketa antolatu du apirilaren 10erako. Auzoko herrietan halako probarik bazela eta, herrian ere «zerbitzu hori» eman zezakeela otu zitzaion Ikastolari. Hutsunea betetzeaz gain, lasterketa honek Orioko inguruko parajeak aurkeztu nahi ditu, mendia eta itsasoa

uztartzan dituen ibilbide batekin. Izan ere, «jende askok ezagutzen ez dituen toki ederretatik pasako da lasterketa, eta mendialde hori hementxe bertan dago», zehaztu du Ikastolako zuzendari Iñaki Berazak.


Mendiko probak 18 kilometroko ibilbidea izango du, 1.000 metroko gorabehera metatuarekin. Lasterketaren luzera zein desnibela kontutan izanik, mendiko lasterketetan «hasteko edota probatzeko oso egokia» dela nabarmendu dute antolatzaileek. Nolanahi ere, parte har-

tu nahi dutenek oinarritzko maila fisikoa eduki behar dute; hau da, sasoi betean egon behar dute, korrika egitera ohituta eta lasterketa herrikoietan eskarmentuarekin. Sasoi egonda ere, halako lasterketetan bakoitzak bilatu behar du bere erritmoa, korrika nahiz oinez, biak tartekatuz proba osatzeko. Azken finean, ez da gauza bera asfaltoan ala mendian lasterka aritzea. Ez dute zerikusirik!

«Bi mendi maratoi egin ditzakezu hilabete batean, baina asfaltoan pentsa ezina da hori. Mendian txandakatu egiten dituzu beharrak: aldapa gora nekatu egiten zara eta behera erreperatu, besteak beste. Guztiz ezberdina da. Ez zoaz denbora jakin bat egin nahian edo markak haustera, baizik eta erritmo bat hartu eta ibilbidea osatzera. Puntako lasterkariak korrika egiten dute ibilbide osoa, baina gainerakoek ahal den moduan», dio Ikastolako zuzendariak mendian lasterketen inguruan. Horrenbestez, ibilbidean zehar ez dute denbora kontrolik jarriko, ezta lasterketa osatzeko denbora mugarik ere. Alde horretatik, malguak izango dira.

Herriko eta bailarako lagun ugari ari da izena ematen egitasmoan, baita Euskal Herri osotik ere. «Egia





esan, ez genuen uste jendea horren animoso ariko zenik. Inoiz ez duzu halakorik espero! Ez genekien zer nolako oihartzuna eta erantzuna izango zuen, are gutxiago lehen aldia izanda. Herrian, behintzat, oso giro polita sortu da, eta herritarren artean bolo-bolo dabil lasterketa. Ondorioz, konturatzen zara horrelako zer baiten beharra bazegoela herrian». Izena emateak 12 euro balio du eta www.oriokoikastola.net webgunean egin behar da. Lasterketa egunean 20 euro balioko du inskripzioak.

Jendetza animatzen doan arren, parte-hartze kopurua 250 lagunetara mugatu dute. Orioko Herri Ikastolaren helburua ez da «sekulako partaidetza duen antolakuntza bat» aurrera eramatea: «Kontrolatu dezakegun partaidetza batekin ekin nahi diogu ekimenari. Hurrengo urteetan eskaera areagotuz gero, bada, horren arabera hartuko genuke partaidetza igotzeko erabakia». Eskaerak eskaera, «datozen urteetan jarraitzeko borondatearekin abiarazi dugu mendi lasterketa».

Ibilbidea bereizgarri

Eskualdean badira beste bi mendi lasterketa; bata, Zumaiako Flysch Trail proba, uztailaren 10ean jokatuko dena, eta, bestea, Zarauzko Pagoeta Mendi Lasterketa, ekainaren 22an izango dena. Baina, zerk egiten du ezberdin Orioko lasterketa? «Azken finean, lasterketa bakoitzak ibilbide propioa du, eta gu ibilbide bariatua bezain erakargarria atontzen ahalegindu gara. Benetan, oso polita da. Txorakeria dirudi, baina lasterkariak asko estimatzen

MENDI PROBAREN profila; ibilbidea kilometro kilometro.

dute ibilbide erakargarri bat proban zehar. Adibidez, Flysch Trailek bertako parajeaz gozatzeko aukera ederra ematen dizu lehiatzen ari zaren bitartean. Eta gurea ere ibilbide oso ederra eta ikusgarria da».

Mendi lasterketarako Ikastolan izango du abiapuntua eta helmuga. Proba hasi bezain pronto, San Martin baselizara abiatuko dira lasterkariak eta, jarraian, Txanka, Erretzabal gaina, Etxaiz baserria, Orioko Benta, Kukuarrri (363 metro), Itsaspe baserria, Luxarbe zalditegia eta baserria igaroko dituzte, hurrenez hurren. Ondoren, Santio bidetik, berriro Kukuarrria igoko dira, eta handik, Andu baserriatik igarota, helmugara iritsiko dira, Txanka eta San Martin baseliza atzean utzita. Hasierako eta

amaierako zatitxoetan baino ez dute asfalto topatuko parte-hartzaileek ibilbide osoan zehar, gainerako guztia menditik egingo baitute. Heldu! Herri Kirol Taldeko kide eta zaldizale Peio Saizar oriotarrak lagundu die Orioko I. Mendi Lasterketaren ibilbidea diseinatzen.

«Erretzabal baserri ingurua deigarria da, guztiz. Horrez gain, lasterketako zati konplexuena Itsaspe baserriatik Luxarbeko zalditegira doana da. Egia esan, oso zati kuriozkoa da; GR-121 mendi bideko zatia, itsasorearen gainetik pasatzen den bide estua, alegia. Harlasta handi bat zeharkatu beharko dute; zenbait unetan baso itxi baten artean», zehaztu du Berazak. Ibilbideko zati «arriskuetsuena» izanda, pasabide horrek antolatzaileei beraei ere «errespetu handia» sortzen diela onartu dute: «Mendiko lasterketetan korrikalariak oso barneratuta du arriskua present dagoela eta zuhurtziaz jokatu behar duela uneoro, ez dabiltzalako errepidean.

Orion ez ezik, zailtasunak proba guztietan daude; Zegama-Aizkorri mendi maratoiko zati batzuetan amildegi baten ondotik zoaz, eta kontuz ibili behar duzu».

Pagoeta Mendi Lasterketa

Zarauz-Pagoeta-Zarauz mendi lasterketaren zortzigarren hizordua maiatzaren 22an jokatuko dute. Azken Portu auzoko Guria taberna aurretik abiatuko dira korrikalariak 10:00etan, eta toki berean helmugaratuko dira, tontorrera igo eta gero. Probak 15 kilometroko luzera izango du eta 1.468 metroko gora-behera metatua. Izena apirilaren 11tik maiatzaren 16ra eman daiteke, eta inskripzioa lasterketaren webgunean egin beharko da ([\[tamendilasterketa.com\]\(http://tamendilasterketa.com\)\), 15 euro ordainduta. Parte-hartze kopurua 225 lagunetara mugatu dute antolatzaileek. Kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek saria jasoko dute. Probako marka berria jartzen dutenek sari berezia jasoko dute, gainera: emakumezkoetan 900 euro eta gizonezkoetan 300 euro.](http://www.pagoeta-</p>
</div>
<div data-bbox=)



Mahai gaineko tenisarekin gozatzen!

Zumaiako Maria eta Jose Ikastetxean

badaramatzate zortzi ikasturte inguru mahai-tenisa lantzen, eskola kirol moduan. Ikasleek beraiek eskatuta eta beste kirol aukera bat eskaini asmoz heldu zieten palei. Gaur egun, alebin eta infantil mailako 80 neska-mutil ari dira mahai-tenisa praktikatzan.

AZKEN URTEETAN gero eta zaletu gehiago ditu mahai-tenisak. Urola Kostako eta inguruetako ikastetxeetan eskola kirol gisa eskaintzen eta jorratzen ari dira: Zarauzko Antoniano Ikastetxean, Zestoako Herri Eskolan eta Zumaiako Maria eta Jose Ikastetxean, esaterako. Aipatutako en artean, zumaiarrak nabarmendu behar dira. Urtero-urtero lan txukuna egiten dute Gipuzkoako nahiz Euskadiko eskolarteko txapelketetan. Aurten, esaterako, alebin mutiletan Gipuzkoako txapeldun izan dira taldeka.

Badira zortzi ikasturte inguru mahai-tenisa lantzen dutela Maria eta Jose Ikastetxean. Eskolan bertan mahai-tenisa jokatzeko bi mahai zituztela-eta, kirol modalitate hau praktikatzan eta lantzen hasi ziren, oso kirol atsegina eta erakargarria

egiten zitzaielako ikasleei. Baina, neurri handi batean, baita ere ikasleek beraiek eskatu zutelako kirol hau lantzen hasia. Gainera, atsedean orduetan futbolaz gain beste aukera bat eskaini asmoz ekin zioten mahai-tenisari. Horrela, Gipuzkoako Mahai-Teniseko Federazioaren bitartez, beste hiru mahai erosi zituzten.

Ikasleak atsedean orduetan aritzen dira normalean mahai-tenisean. Soinketa garaian landu ez arren, soinketako irakasleak eta ikastetxeko Eskola Kiroleko koordinatzaileak erakusten dizkiete jokatzeko arauak eta hainbat teknika. Atsedean orduz gain, alebin mailako neska-mutilak ikastetxean geratzen dira 17:00etatik 18:00etara euren artean jokatzeko. Aurreko laupabost ikas-



DATUA

30

Duela 30 urte Zarauzko Aritzbatalde futbol zelai zaharrear partida jokatu zuten 80ko hamarkadaren erdialdean Real Madrileko izar bihurtu ziren jokalariek. 1980/1981 denboraldian Jubenilen Espainiako Liga jokatu zuen Zarauzko taldeak eta, besteak beste, Athletic, Osasuna, Zaragoza, Racing, Real eta Real Madril bezalako talde gazteen aurka neurtu zituen indarrak. Real Madrilaren aurka otsailaren 15ean jokatu zuten etxean, eta bertan *Buitre-
ren kinta* izenez ezagun egingo ziren jokariak aritu ziren: Emilio Butragueño, Miguel Pardeza, Jose Miguel Gonzalez Michel, Rafael Martin Vazquez eta Manolo Sanchis.



BA AL DAKIZU...

Nola bukatu zen Real Madrilaren aurkako partida?

Bana berdinduta bukatzekotan zen Zarauzko eta Real Madrilaren arteko partida, Patxi Larrañaga getariarrak sartutako golari esker. Azken minutuan, ordea, epaileak madrildarren aldeko penaltia izan zela erabaki zuen. Dirudenez, berak bakarrik ikusi zuen penaltia. Egun Getafe taldeko entrenatzaile Michelek sartu zuen gola eta, ondorioz, madrildarrak nagusitu ziren 1-2ko emaitzarekin. Epaileak ambulatorio aldetik egin behar izan zuen ihes, jendea gainera zetorkiolako.



turteetan Gipuzkoako Mahai-Tenis Federazioko kide Carlos Fernandezek ikastaroak ematen zizkien astean behin, 14:00etatik 15:00etara. Gauza bera egiten zuen Zestoako Herri Eskolan eta Antoniano Ikastetxean. Ikasturteko lehen hiruhilekoan alebinekin jarduten zuen lanean eta bigarrenaren amaieran, berriz, LH4ko ikasleekin. Aurten, ordea, Fernandezek ezin izan du etorri ikasturte osoan zehar. Ondorioz, ikastetxeko eskola kiroleko koordinatzaileak hartu du entrenamendu saioen ardura, baita ikastetxeko txapelketaren antolaketa ere. Abendua eta urtarrita bitartean jokatzeko txapelketa, eta bertan erabakitzen dute Gipuzkoako txapelketetara zein talde sailkatzen diren.

Eskola kirolaren baitan, alebin nesketan 5 talde dituzte eta talde bakoitzean 4 jokalarik; mutiletan, berriz, 6 talde osatu dira. Beraz, 43 neska-mutil guztira. Infantil nesken artean, 8 lagunek bakarrik eman dute izena aurten; hala, bi talde osatu dituzte. Infantil mutilei dagokienez, 8 talde osatu dituzte, 29 lagun orotara.



Zarauz



Zinema

pilotalekua, harrobia lantzen

Zarauz Kirol Elkartearen pilota sailak antolatuta, alebinen eta infantilen arteko eskuzko Neguko Txapelketa jokatzeko ari dira otsaila amaieraz geroztik, ostiraletan 19:00etatik aurrera, Zinemaren pilotalekuan. Lau bikote ari dira lehiatzen. Zarauzko pilotariek gain, bi getariar eta Añorga pilota eskolako kide bat ari dira jokoa.

HARIARI TIRAKA

Orio Herri Kirolak

Etxeberriaren marka berria

ORIOKO HERRI Ikastolak Udalarekin zuen hitzarmena berreskuratzeko asmoz, herri kirol jaialdia antolatu zuen martxoaren 12ko arratsaldean. Tartean, Idoia Etxeberria harri-jasotzaile oriotarrak bere marka ondu zuen eta, bide batez, gainera, errekor berria jarri zuen emakumezkoen arloan, 140 kiloko harri errektularra bi aldiz jasota. 18 urteko harri-jasotzaileak etxean egin zuen marka ahalegina, eta ezin hobeto etorri zaitzaizkion herritarren animoak. Lau minututan, koadroa birritan bizkarreratu zuen. Ondorioz, iazko irailaren 26an Iruran lortutakoa hobetu zuen. Orduan 138 kiloko koadroa bost



aldiz jaso zuen, 17 urte zituela. Errekor saiakera baino lehen, Marokinako Danok Bat eta Orioko Heldu! taldeen arteko giza proba lehia jokatu zen. Honetan ere etxeko seikotea gailendu zen, plaza bateko aldearekin. Oriotarrek 49 plaza egin

zituzten 700 kiloko harriari tiraka, 20 minutuko saioan; Bizkaiko koadrilak, berriz, 48 egin zituen. Ikastolaren aldeko herri kirol jaialdian, era berean, Ruben Trillo, Aimar Galarraga eta Joseba Ostolaza harri-jasotzaileek hartu zuten parte.



Zarauztarrak bikain, master mailako txapelketa irekian

Zarautz Balea Igeriketa taldeak antolatuta, Baby-Auto Saria I. Master Txapelketa Irekia jokatu zuten Aritzatalde kiroldegiko igerilekuan. Guztira, 16 taldetako 150 igerilari inguru aritu ziren lehian martxoaren 12an eta 13an. Etxeko taldekideek hainbat domina lortu zituzten; sailkapen bateratuan, gainera, lehen postuan bukatu zuten, Fortuna eta Judizmendi taldeen aurretik.

Eskualdeko Erremontea Juaristi binakako finalean

Sagardoaren Txapelketako finalerdietan aurrez aurre aritu ziren Jon Juaristi zarauztarra eta Borja Agirresarobe oriotarra. Lehenak Olazar izan zuen bikotekide Hernaniko Galarreta pilotalekuan jokatu zuten norgehiagokan; bigarrenak, bien bitartean, Etxeberria III.a. Eskualdeko bi erremontisten arteko lehia gogorra bezain parekatua izan zen, baina azkenean 40-33ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Juaristi-Olazar bikotea Agirresarobe-Etxeberria III.ari, nahiz eta faboritoak oriotarra eta haren laguna izan. Datorren larunbatean, martxoaren 26an, jokatuko dute finala Juaristi-Olazarrek, Endika-Urrutia laren aurka. Bien artean egongo da erremonteko binakako txapela, hain zuzen ere.





Marka berria jarri dute Zumaiako Herri Lasterketan

Euria eta haizea izan ziren Zumaiako Herri Lasterketako korrikalarien aurkari gogorrenak. Hala ere, 521 lagun animatu ziren 10,2 kilometroak osatzera. Gizonezkoetan, Abdelhak Sabhi marokoarrak 3 segundoan hobetu zuen probako marka, ordularia 30:18an geratuz. Emakumezkoetan ere gertu egon zen marka berria, baina Eseynat Misganaw etiopiarra Ainhoa Murua zarauztarraren errekorretik bost segundora gelditu zen, 36:04 denborarekin.

Futbola

Algorri Zumaiako Realzaleen Taldea aurkeztu zuten martxoaren 8an, Torreberriin. Besteak beste, Dani Estrada eta Mikel Labaka jokalariek hartu zuten parte bertan.

Triatloia

Triatleta parte-hartzaileen segurtasuna bermatze aldera, BH Zarauzko Triatloi probako bizikleta zirkuitua itxia izango da. Beraz, Getaria, Zumaia eta Zarautz arteko trafikoa moztu egingo dute bi noranzkoetan, ekainaren 11n.

Arrauna

Oriako XVII. Jaitsieran Bermecko ontziak egin zuen denborarik onena. Eskualdeko ordezkarien artean, Zumaia A trainerua izan zen lehena; sailkapen orokorrean zazpigarren helmugaratu zen.

Zarauz Txirrindularitza Afizionatuetako talde berria, gurpil gainean



Zarauztarra Txirrindulari Kirol Elkarteak 23 urtez azpiko elite taldea sortu du. Orain arte jubenilak ziren elkarteko txirrindulari zaharrenak; azken urteotan ez da egon afizionatu mailan talderik. Hori konpontze aldera, iaz jubenilak izandakoak lanean hasi ziren, hainbat probatan parte hartuz. Aurten, ordea, zerbait serioagoa egin asmoz, hamahiru txirrindulari inguru elkartu dira taldea aurrera ateratzeko. Gorka Gonzalez txirrindulari ohia da taldeko zuzendari teknikoa.



Zarauzko eta Zumaiako plaieroen azken txanpa

Zarauzko Hondartzako Futbol Txapelketako finalak apirilaren 17an jokatuko dituzte. Urtero bezala, helduen nahiz eskolartekoen hainbat partiden topaleku bihurtuko da hondartza. Zumaian, berriz, apirilaren 30ean jarri dute hitzordua: bertan Ligako eta Kopako finalak jokatuko dituzte. Aurretik, apirilaren 17an, finalerdien txanda izango da. Kanporaketako bi irabazleek Kopako finalean neurtuko dituzte indarrak.



Zazpiak bat zortzi tontorretatik

**GETARIAKO
MENDIZALEEK
zazpi
herrialdeetako
zortzi gailur
igoko dituzte
azaroa
bitartean.**

Getariako mendizaleek Euskal Herriko herrialde bakoitzeko gailur esanguratsuenak igoko dituzte azaroa bitartean; lehen irteera Lapurdiko Artzamendira egin zuten.

GAILURREZ GAILUR Euskal Herria zeharkatzea dute helburu Getariako mendizaleek aurtengo denboraldian. Zehatz-mehatz, zazpi herrialdeetan tontor bana igoko dute azaroa bitartean. Salbuespen bakarra Nafarroan egingo dute; izan ere, bi irteera egingo dituzte bertan. Horietako bat, gainera, familia osoarentzako modukoa da, haurrek ere parte har dezaten. Hortaz, zortzi ibilaldi izango dira zortzi hilabetetan.

Joan den martxoaren 13an ekin zioten egistamoari eta lehen igoera Lapurdin egin zuten, Artzamendira (931 metro). Hurrengo hitzorduak honakoak dira, hurrenez hurren: apirilaren 10ean, Gorbeia (1.481 metro, Bizkaia); ekainaren 18an, Ori (2.017 metro, Zuberoa), eta ekainaren 19an, Okabe (1.466 metro, Nafarroa Beherea); uztailaren 9an eta 10ean, Hiru Erregeen Mahaia (2.428 metro, Nafarroa); irailaren 25ean, Aralarren familia osoari zuzendutako txangoa, San Migel inguruan (1.300-1.400 metro, Nafarroa); urriaren 23an, Aizkorri eta Aitxuri (1.528 eta 1.551 metro, Gipuzkoa); eta azaroaren 6an, azkenik, Larrasa-Toloño (1.454 metro, Araba).

Mendi egitasmo hau iazko Gipuzkoa Oinez ekimenaren (GR-121 ibilbidearen) jarraipena litzateke. Isidro Etxeberria eta Nika Lertxundi

getariarrek abiarazi zuten Gipuzkoari mendiz mendi bira emateko ideia hura. Herrian mendizaleetasuna sustatze aldera, herritarrak erakartze aldera, ekin zioten ekimenari. Azkenean, espero baino lagun gehiago izan ziren, txango bakoitzean bataz beste 60 lagunek hartu baitzuten parte. Izandako arrakastaren haritik, Larrañagak eta Lertxundik bigarren erronka hau abiarazi dute.

Iaz 23 kilometro inguruko ibilaldi luzeak osatu zituzten mendizale getariarrek. Aurten, ordea, txango bertikalak egingo dituzte; tontorrak igoko dituzte, hain zuzen ere. Edonola ere, antolatzaileek garbi utzi dutenez, azaroa bitarteko irteerak ez dira iazkoak baino zailagoak izango. Gailurretara igoko dira, bai, baina orokorrean bospasei ordu iraungo dute ibilaldiak; iaz bezalaxe, azken finean.

